


# BESTAK URDAZUBI, IRURITA

2025



**ttipi-ttapa** | 878 zk. | 2025-05-22






# URDAZUBIKO BESTAK 2025

## Maiatzak 28, asteazkena

**20:00etan** txupinazoa eta ezkila jotzea plazan aperifarekin. **21:30ean** herri afaria Montxo erretegian herriko musikariek alaiturik.

## Maiatzak 29, ortzeguna

**09:00etan** meza nagusia. **12:00etan** ezkila jotzea eta ondotik aperitifa txistulariekin eta euskal dantzariekin. **16:30ean** haurrentzako jokoak. **18:00etan** bertso poteoa Maddi Ane Txoperena eta Miren Artetxe bertsolariekin. **21:30ean** paella jatea plazan. **Ondotik,** Holakorekin dantzaldia.

## Maiatzak 30, ortziralea

**11:30ean** haurrendako Conquis erronka. **14:00etan** Ugarana emakume elkarteko bazkaria eta gazte bazkaria. **18:30ean** txokolate jatea frontoian eta herriko gazteen herri kirol erakustaldia. **20:00etan** pintxoak plazan denentzat. **Ondotik,** kontzertuak: Herritarrak, Atzarbale txaranga eta DJ Ganix.




















## Maiatzak 31, larunbata

**14:30ean** zikiro jatea Igandea txarangak alaiturik. **Gero** kalejira herriko karriketan barna. **16:30ean** haurrentzako jokoak. **21:30ean** indarberritzeko zingar jatea eta giro onari kontzeko Destino Sonora mariatxi taldearekin dantzaldia. **23:30ean** kontzertua Gabezin taldearekin plazan. **Ondotik**, DJ Kapitan General.

## Ekaina 1, igandea

**16:00etan** herriko gaztetxoen pilota erakustaldia. **17:00etan** Ados pilota taldeko profesionalen bertso-pilota partida. **Partidaren ondotik**, plazan nahi adina pintxo eta edateko izanen da.








EXPERIENTIAL SHOPPING

# GORA URDAZUBIKO BESTAK!





Harategia



Arrandegia




Fruta eta barazkiak



Edariak

**BESTETAKO BAZKARIA**
ANTOLATU BEHAR DUZU?
ZERBAIT FALTA ZAIZU DESPENTSAN?
USTEKABEKO **BISITA** DAUKAZU **ETXEAN**?
**OPARI BAT** EGIN BEHAR DUZU?

Zatoz gure supermerkatuetara, asteburuan ere zabalik daude.

IREKITA 7 EGUN

IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE

ventabiok.com
















# «Azken urteetan adin guztietako jendea biltzen da plazan»

**MAIALEN JAURENA ETXART** BESTA KOMISIOKO KIDEA



Maiatzaren 28an hasiko dira Urdazubiko bestak eta gogotsu eta prest dago Maialen Jaurena Etxart urdazubiarra. Besta komisioko kidea da eta hilabeteak daramatza herriko bestak antolatzen bertze lagun batzuekin batera. «Maiatzeko lehenengo asteburuan denen artean karpa jarri genuen, jende aunitz hurbildu zen laguntzera eta bestak ailegatzeko gogoa piztu zitzaidan halako giroa ikusita».

Ttikia zeneko besten oroitzapen politak ditu Jaurenak. Aski kontent ibiltzen zen, batez ere puzgarrietan arratsalde osoa lagunekin saltoka. Ongi oroitzen da bestetako lehen oroitzapenaz ere:« Ortzeguneko meza nagusiaren ondotik, txistulariak eta dantzariak izaten genituen plazan. Sarako Zazpiak Bat taldearekin aritzen nintzen dantzan, eta aperitifaren aitzinetik ateratzea berexia eta polita izaten zen», dio.

### Herriko bestak prestatzeko lanetan

Bestak maiatz akabailan izanen badira ere, besta komisioko kideak aspalditik ari dira lanean. Bortz lagun ari dira horretan: «Aurten Lorena, Janire, Jokin, Andoni eta ni gaude komisioan», azaldu du. Normalean, bi urtez egoten dira komisioko kideak, eta boto bidez edo boluntarioki hautatzen da nor sartu. «Urte bukaeran hiru lagun aterako gara eta hiru berri sartu, eta ondoko urtean bertzeak biak atera eta bertze bi sartu».

Bestak antolatzeko lehen urratsak urtarrilean izan zituzten, orduan hasi baitziren finkatzen aurtengo musika eskaintza. Gerora, lanak egin dituzte almazena konpontzeko eta maiatz hasmentan karpa montatuta, egitaraua finkatzeaz bukatu eta azken lanak egiten ari dira orain.

### Egitarau betea

Herriko bestak hastean, etxean denbora gutti emanen du Jaurenak, egunero aterako baita karrikara. Prest du egunez egun eginen duena ere: «Asteazkenean txupinazoa eta herri afariarekin hasten ditut bestak; ortzegunean goizean meza eta aperitifa eta arratsaldean bertso poteoa eta paella jatea. Ortziralean egun guzia emanen dut plazan, goizean ontziak garbitzen hasi eta gaueko DJa ikusi arte; larunbatean zikiro jatea handia izaten da eta igandean pilota partidak». Aurten bereziki gogotsu dago igandean Ados Pilotako nesken partidak izanen baitira eta gogoa baitu ikustera joateko. Egunero besta giroa izanen bada ere, baina Jaurenarentzat egunik bereziena larunbatekoa da sortzen den giroagatik, eta biltzen duen jende kopuruagatik ere.

Azken urteetan bestetan plazaren bueltan dagoen giroa aldatzen ari denaren ustea du Jaurenak: «Lehen ostatuan egoten zen jende gehiena eta plaza betea ikustea kotatzen zen. Azken urteetan, giro aski polita izaten da plazan, adin guztietako jendea elkarrekin eta herria geroz eta elkartuago. Harro egoteko moduko herria dugu!».

Urdazubiko herritarrei zein kanpotarrei azken mezu bat zabaldu die Jaurenak: «Bestak giro onean eta arazorik gabe pasatzeko ahalegina eginen dugu, eta espero dugu erasorik gabekoak izatea».


IRIGOIENEA
www.irigoienea.com
948 599 267
URDAZUBI
reservas@irigoienea.com
ONGI PASA BESTAK!


Mikelen-Borda
BENTA - JATETXEA
VENTA MIKELEN BORDA
Ongi pasa bestak!!
GURE BASERRIKO ARATXE HARAGIA SALTZEN DUGU
Dantxarinea - URDAZUBI
T. 948 599 045 | www.mikelenborda.com


IRIARTEA
BENTA
Autozerbitzua · Ostatua · Larrua...
DANTXARINEA • Urdazubi • T. 948 599 049 • ventairiartea@hotmail.es


KULTURKARI


ongi pasa bestak!
PatxiJaurena
ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER
628 550 490 - URDAZUBI(Na)
ursunea@gmail.com


CONSTRUCCIONES
A. BENGOTXEA
- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamendu-lanak
- Obra publikoak
- Zeramika denda
ONGI PASA BESTAK!
URDAZUBI
Tel. 948 599 484
www.carrelagesbengotxea.com


Ongi pasa bestak!
VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU
Igande eta jaiegunetan zabalik
Dantxarinea • Ibardin • Behobia • Luzaide
www.venta-peio.com
+34 948 625 130
peioventa
@venta.peio













# IRURITAKO BESTAK 2025

## Maiatzak 28, asteazkena

**12:00etan** txupinazoa eta herriari buelta Baztango Gaitariekin eta erraldoiekin. **16:00etan** haurren pilotako semifinala eta finala, **ondotik** haurren merienda. **17:30ean** gazteen arteko herri kirol desafioa, **ondotik** gazteen pilota finala. **18:30etik 20:30era** dantzaldia plazan Beñat eta Fernandorekin. **20:00etan** ezkila jotzea eta **21:00etan** baztan zopak. **Ondotik** dantzaldia plazan Beñat eta Fernandorekin.

## Maiatzak 29, ortzeguna

**09:00etan** diana. **11:00etan** meza nagusia. **12:00etan** Iruritako Dantzarien emanaldia, **ondotik** luntxa. **17:45ean** haurren pilota finaleko sari banaketa frontoian. **18:00etan** bertso pilota. **19:30etik 21:00etara** Joselu Anaiak plazan. **21:30etik 22:30era** mutil dantzak. **00:00etatik 03:00etara** Joselu Anaiak, **ondotik** besta karpan.

## Maiatzak 30, ortziralea

**09:00etan** diana baserrietan eta Iruritako Txistulariak herritik barna. **11:30etik 13:30era** haurrendako puzgarriak frontoian, **ondotik** haurren bazkaria karpan. **14:00etan** gazteen bazkaria Jauregiarten eta jubilatuen bazkaria Olarin. **15:00etatik 18:00etara** haurrendako puzgarriak frontoian. **18:30ean** kalejira erraldoiekin. **20:00etan** bokatak guraso elkartearen eskutik. **20:00etatik 21:00etara** dantzaldia Itzal taldearekin. **21:30ean** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **22:00etatik 01:00etara** Sakatu elektrotxaranga. **00:00etatik 03:00etara** dantzaldia Itzal taldearekin plazan eta **01:30etik 03:00etara** Maruxak karpan.



## Maiatzak 31, larunbata

**10:00etan** diana. **12:00etan** kalejira erraldoiekin. **14:00etan** zikiroa Luzianok alaiturik,eta **ondotik** herriari buelta Elutxa txarangarekin. **20:00etan** bokatak guraso elkartearen eskutik. **20:00etatik 21:00etara** dantzaldia Iratzar taldearekin plazan. **21:30ean** mutil dantzak. **23:00etatik 02:00etara** Iratzar taldea plazan. **00:00etatik 04:00etara** J&J DJ karpan eta **04:00etatik 07:00etara** Aimar DJ trinketean.

## Ekainak 1, igandea

**12:30ean** kalejira erraldoiekin. **16:30ean** haur eta gurasoen arteko herri kirol desafioa. **17:30ean** herri kirol erakustaldia: aizkoran Ibai Soroa eta Eneko Saralegi, lastoan Jon Lapazaran eta harri altxatzen Estefi Etxebeste eta Imanol Royo. **19:00etan** Los Tajudos del Norte mariatxien koak plazan, eta bestak akitzeko, *Gaixoak gu*.

# «Herriaren alde lan egiteko gogoarekin sartu gara lantaldean»

**IRURITAKO ALKATETZA TALDEA**



Urte berriarekin aldaketak ailegatu dira Iruritarat, alkatetza taldea guztiz berritu baitute aurten. Azaldu dutenez, «aitzineko alkateak kargua utzi ondotik, bi batzar egin ziren herrian baina ez zen inor aurkeztu. Herritar batzuongan kezka sortu zuen egoerak, eta horrela sortu zen oraingo taldea». 13 lagunek osatu dute talde berria: Amaia Arraztoa, Begoña Goienetxe, Igor Urrutia, Jokin Zabaleta, Joseba Urtasun, Julen Loiarte, Kotte Plaza, Maite Oteiza, Maria Goienetxe, Mikel Sagaseta, Patxi Barberena, Peio Obregozo eta Xabi Ripa. «Denak herriaren alde lan egiteko gogoarekin».

Begoña Goienetxe alkate izendatu dute «horrela behartzen duelakoz Baztango funtzionamenduak», baina «ardurak eta eginkizunak denon artean banatzen ditugu. Aitzineko urteetan ikusten genuen alkateek zama handia eramaten zutela haiengan, eta hori saihesteko, lan egiteko manera aldatu dugu. Bi telefono jarri ditugu martxan herritarren eskaerak bideratu ahal izateeko, bat 'ura kudeatzeko eta auzolenatarako', eta bertzea 'herriko bertze aferendako'. Bi taldetan banatu gara, lehenbizikoa auzolanez eta uren aferez arduratzen da eta bigarrena Gizarte Bilguneaz, ⟶












EM
Estitxu Mikelperizena
Pedro Maria Hualde, 38 - behea | IRURITA
644 941 155
Ongi pasa bestak!

OTEIZA
ARKITEKTOAK
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com
oteizaarquitectos
Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)
Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

Gureauto
TAILERRAK
Mekanika, elektrizitatea, mantentze lanak...
Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

TELLERIA KALEA 7
IRURITA 31730 · 679228775
GIZARTE BILGUNEKO OSTATUA
OTORDUAK · OGITARTEKOAK · COSARIAK
Besta Zoriontsuak!



Dorreaz, kanposantuaz eta sortzen diren gainerako behar guziez».

Otsailean sortu zuten taldea eta «oraingoz gaiekin eguneratzen eta martxa hartzen ari gara». Lehentasunen artean, «Gizarte Bilguneko ostatua martxan jartzea izan da, momentuz hori lortu dugu eta orain gaineko aretoaren erabileraren arauketan murgilduta gabiltza. Bertzalde, Dorreari epe motzean erabilera ematea da bertze lehentasunetako bat». Horrez gain, «baserrietako pistak konpontzen hasiak gara, uren isuri batzuk konpondu ditugu eta herria txukuntzeko auzolana egin da». Etorkizunera begira, «azkeneko urteetan egin denari segida ziurtatu nahi diogu, eta sortzen diren beharrei irtenbidea eman».

Kulturak ere leku inportantea hartzen du Iruritan, eta horren erdigunea da Gizarte Bilgunea. Aitortu dutenez, «ekitaldi kultural gehienak udalak antolatzen ditu eta horiek guri ez digute lan handirik eskatzen. Gure ardura da herriak hor egiten dituen ekitaldien koordinaketa egitea, eta aretoaren mantentze lana ere gure gain dago». Herriko elkarteek ere ekitaldi ugari antolatzen dituzte, «herria bizirik dagoen seinale».

## Bestetarako gogotsu

Irurita bizirik dagoenaren adirazgarririk handiena dira, hain zuzen ere, herriko bestak. Egitarauaren antolaketaz gazteak arduratzen badira ere, «aitzinetik egin behar diren tramite aunitz herriko lantaldeak egiten ditu».

Egun bereziak dira, «alde batetik eskualdeko lehenbiziko bestak direnez, jende aunitz etortzen delakoz, eta bertzetik hainbertze ekitaldi antolatzen direlakoz adin guzietako jendearendako». Bertze urtetan bezala, «aurten ere bestak giro ederrean joatea espero dugu, jendeak ongi pasatzea eta aldi berean errespetuz jokatzea. Hurbiltzen zareten guziak ongi etorriak izanen zarete Iruritan!».



MIGUELENE
OBRAS Y CONSTRUCCIONES · ERAIKUNTZAK
Ongi pasa bestak!
IRURITA | T. 677 225 112

ONGI PASA BESTAK!
JOXEMI BENGOTXEA
Zurgindegia-Egurrak
Tel. 660 501 584 | Irurita
joxemibengotxea.com

erran.eus
Mendialdeko Albisteak